ASTIGARRAGAKO UDALA







Agenda

Aukeratu:

Eguna: Guztiak
Hilabetea: Urtarrila
Urtea: 2011
Ikusi

**2011-01-08: Haurrentzako zinema: *EURIAREN SEME-ALABAK***

Zuzendaria: Philippe Leclerc
Herrialdea: Frantzia
Iraupena: 86 min.

Lekua: Kultur etxean
Ordua: 17:00etan
Sarrera: Sarrera: 2 €. Salgai kultur etxean proiekzioaren astean zehar eta emanaldia baino ordu bete lehenago.

**2011-01-09: GAZTEENTZAKO SASKIBALOIA.**

Gazteen artean jarduera fisikoa sustatzeko kanpainaren barruan, kirol sailak gaztelekuarekin batera saskibaloi ekitaldi irekia antolatu du kiroldegian 11:00etatik 12:00etara.

**2011-01-12: SAGARDO BERRIAREN EGUNA**

12:00etan, aurkezpena egingo da kultur etxean eta denboraldia irekiko duen pertsonak sagarrondo bat landatuko du. Ondoren Petritegi sagardotegian txotx ekitaldiarekin 2011ko denboraldiari hasiera ofiziala emango zaio. Antolatzailea: Sagardun partzuergoa.

**2011-01-13: Ipuin ordua: *KANGUMEA***

LEKUA: liburutegian
ORDUA: 17:45ean 3 -5 urte bitarteko haurrentzat.
18:15ean 6-9 urte bitarteko haurrentzat
IPUIN-KONTALARIA: Lur Korta.

OHARRA: Ipuina hasi ondoren ezin da aretoan sartu. Gurasoek kultur etxeko sarreran itxaron behar dute.

**2011-01-16: Haurrentzako antzerki musikala: *GOIBEL***

Yolanda Pascualena, Mikel Antero, Iker Bengoetxea eta David Rosco

Golden Apple Quartet taldeak haurrentzako ekoiztutako hirugarren ikuskizun musikal hau Hansel eta Gretel ipuinean oinarrituta dago. Familia osoak gustura ikusteko moduko ikuskizuna da, ipuinaren gorabeherak umorez beteriko abesti ezagunekin eta bideo grabazioekin lagunduta daude.

Lekua: kultur etxean
Ordua: 17:30ean
Sarrera: 2,5 €. Kultur etxean salgai urtarrilaren 10etik aurrera eta emanaldiaren egunean saioa hasi baino ordubete lehenago.

**2011-01-17: BIODIBERTSITATEARI BURUZKO ERAKUSKETA**

Urtarrilaren 17tik 28ra kultur etxean

Biodibertsitatea edo dibertsitate biologikoa gure planetaren bizitza osoa da, gure existentziaren oinarria. Hainbat espezie galtzen ari dira eta naturgune ugari ere degradatzeko bidean dago. Egoera latz horren aurrean, Nazio Batuek BIODIBERTSITATEAREN NAZIOARTEKO URTEA deklaratu zuten 2010. urtea, jendea ingurumena kontserbatzeko garrantziaren eta dibertsitate biologikoaren aurkako mehatxuen inguruan kontzientziatzeko. Helburu bera du udaletxeko Agenda 21 sailak antolatutako erakusketa honek.

**2011-01-22: Haurrentzako zinema: *BORROWERS***

Zuzendaria: Peter Hewitt
Herrialdea: Erresuma Batua eta AEB
Iraupena: 87 min.

Lekua: Kultur etxean
Ordua: 17:00etan
Sarrera: Sarrera: 2 €. Salgai kultur etxean proiekzioaren astean zehar eta emanaldia baino ordu bete lehenago.

**2011-01-29: Ikuskizun musikala: *DEMODÉ QUARTET***



ASTIGARRAGA PARTE HARTZEN
UDAL ZERBITZU EZBERDINEN ERABILERAKO IKUSPEGIAK ETA JARRERAK AZTERTZEKO ETA ADOSTEKO PROZESU PARTE HARTZAILEA
buruntzaldea
MUGIKORTASUN ASTEA 2010